

**EL HOSPITAL MILITAR DE
PRISIONEROS DE GUERRA DE
GERNIKA**

1938-1940

**GERNIKAKO GERRA-PRESOEN
OSPITALE MILITARRA**

MORIR EN GERNIKA / GERNIKAN HIL

JOSÉ ÁNGEL ETXANIZ ORTÚÑEZ

VICENTE DEL PALACIO SÁNCHEZ

GERNIKAZARRA

269 PRESO IN MEMORIAM

AMAGOÍA LOPEZ DE LARRUZZEA ZARATE

IÑAKI URIBARRENA IBARGUENGOITIA

PIPERGORRI

269

EL HOSPITAL MILITAR DE PRISIONEROS DE GUERRA DE GERNIKA

1938-1940

GERNIKAKO GERRA-PRESOEN OSPITALE MILITARRA

Coordinadora Amagoia Lopez de Larruzea Zarate koordinatzailea

MORIR EN GERNIKA/GERNIKAN HIL

José Ángel Etxaniz Ortúñez

Vicente del Palacio Sánchez

GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA

269 PRESO IN MEMORIAM

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate

Iñaki Uribarrena Ibarguengoitia

PIPERGORRI KULTUR ALKARTEA

GERNIKA-LUMO 2022

Azala/ Portada:

José Ibarrola

Koordinatzailea /Coordinadora:

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate

© J.A. Etxaniz Ortúñez - V. del Palacio Sánchez / Gernikazarra Historia taldea

© A. Lopez de Larruzea Zarate- I. Uribarrena Iburguengoitia / Pipergorri K.A.

Itzulpena/ Traducción:

Gernika-Lumoko Udala- Euskara Zerbitzua (Gernikan hil)

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate (269 preso in memoriam)

Diseinua /Diseño:

Janire Orduna

Imprimaketa /Impresión:

Sprint Digital S.L.

ISBN

978-84-09-39546-0

Lege gordailua/Depósito legal

LG BI 00521-2022

pipergorigernika@gmail.com



PIPERGORRI
KULTUR ALKARTEA

ÍNDICE

AURKIBIDEA

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN	4
HITZAURREA / PRÓLOGO Memoriaren puzzlea / El puzzle de la memoria · Joseba Eceolaza	6
GERNIKAN HIL / MORIR EN GERNIKA	8
269 PRESO IN MEMORIAM	36
Hildakoen zerrenda / Relación de fallecidos	37
Datu orokorrak / Datos generales	52
Testuingurua eta Kontu Auzitegiko datuak / Contexto y datos del Tribunal de Cuentas	54
Dokumentazio-iturriak erkatzea. Ondorioak / Cotejo de fuentes documentales. Resultados	62
Biografías/ Biografiak	68
Ángel Parroren gutuna / Carta de Ángel Parro (1938-06-23)	93
Memorial 269 Memoriala	94
Artxiboak eta bibliografia / Archivos y bibliografía	97
Esker ona / Agradecimientos	98

Hildako 269 errepublikanuei. Euren familieei.

AURKEZPENA

Argitalpen hau **GERNIKAKO GERRA-PRESOEN OSPITALE MILITARRA (1938-1940) zarratu zeneko LXXX+II. urteurrena** izeneko proiektuaren atala da, izan ere ospitale honetan bertan 1938ko ekainaren 2tik 1940ko ekainaren 3ra arte 269 preso errepublikanu hil ziren, Zalloko udal hilerrian lurperatu zituztenak.

Argitalpenean aspaldian JOSÉ ÁNGEL ETXANIZ ORTUÑEZek eta VICENTE DEL PALACIO SÁNCHEZek egin eta zabaldu zuten “Morir en Gernika (Gernikan hil)” (Aldaba.122/2003) izeneko ikerketa historikoa batzen da: lan hori egileek eurek aztertu dute, lana eguneratuta eta euskaratuta eskaintzeko moduan. Horrez gainera, PIPERGORRI alkarteko kideak diren AMAGOIA LOPEZ DE LARRUZZEA ZARATEk eta IÑAKI URIBARRENA IBARGUENGOITIAk orain arte zabaldutako hildakoen zerrenden gaineko erkaketa eta dokumentazio beharra egin dute beti ere hildakoen behin betiko zerrenda kaleratzeko, eta horrekin batera familien testigantzen ekarpena eta ikerketan zehar batutako datu biografikoekin ondo hornituta. Hemen argitaratzen den hildakoen zerrendaren helburua da preso horien izenen identifikazio zuzena eskaintzea, eta izenak ez ezik, jatorri eta jaiotze data ere ematea, Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen erroldak egiten direnerako prest egoteko.

Lan historiko-dokumental hau, Zalloko udal hilerrian José Ibarrolak burututako interbentzio artistikoa eta presoei egin beharreko omenaldiaren bidez lortu nahi da bertan hildako 269 pertsonen gizarte-errehabilitazioa, orduan gertatu ziren gorabeherak ezagutzeko, biktima errepublikanuen gaineko ezagutzaren zabalkundea, eta azken batean guzti-guztien errehabilitazio moralak. Azken helburua da lan honen ekarpenak urte askotako ahanztura interesatu eta injustoari amaiera ematea.

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate, koordinatzailea



PIPERGORRI
KULTUR ALKARTEA

*A los 269 republicanos fallecidos.
A sus familias.*

PRESENTACIÓN

Esta publicación forma parte del proyecto **LXXX+II aniversario del cierre del HOSPITAL MILITAR DE PRISIONEROS DE GUERRA DE GERNIKA (1938-1940)**, centro en el que fallecieron 269 presos republicanos entre el 2 de junio de 1938 y el 3 de junio de 1940, y que fueron enterrados en el cementerio municipal de Zallo.

En la publicación se recoge el estudio histórico que en su día hicieron y difundieron JOSÉ ÁNGEL ETXANIZ ORTÚÑEZ y VICENTE DEL PALACIO SÁNCHEZ “Morir en Gernika” (Aldaba.122/ 2003): dicho trabajo ha sido revisado por los propios autores para ofrecer una actualización del mismo. Además, los miembros de PIPERGORRI alkartea, AMAGOIA LOPEZ DE LARRUZEA ZARATE e IÑAKI URIBARRENA IBAR-GUENGOITIA han realizado una labor de documentación y cotejo de las diferentes listas de dichos fallecidos para publicar una relación definitiva, junto a una aportación de testimonios familiares y datos biográficos recogidos a lo largo de esta labor investigadora. La relación de fallecidos que se publica tiene como objetivo el ofrecer una correcta identificación de los nombres de dichos presos, además de otros datos como su naturaleza y fecha de nacimiento, todo ello en aras a formar parte de un censo (en elaboración) de víctimas de la Guerra Civil y del franquismo.

Este trabajo histórico-documental, la intervención artística realizada por José Ibarrola en el cementerio municipal de Zallo y el homenaje a los presos tienen como objetivo la rehabilitación social de las 269 personas allí fallecidas, el conocimiento de las circunstancias en las que ocurrió, la difusión de los conocimientos sobre las víctimas republicanas, y en última instancia la rehabilitación moral de todos ellos. El objetivo final es aportar un trabajo para poner fin así al olvido injusto e interesado de tantos años.

Amagoia Lopez de Larruzea Zarate, coordinadora



PIPERGORRI
KULTUR ALKARTEA

HITZAURREA:

MEMORIAREN PUZZLEA

Gerra Zibilaren ondoren diktadura luzea eta odoltsua etorri zen. Eta horrek markatu du nola egin behar izan diogun aurre memoria errepublikanoa berrerakitzeari. Frankismoa eremu guztietan gogor ere gogor ezarri zelako. Milazak fusilatu edo milazak atzerrira bidali eta populazio zibila bonbardatu ostean, diktadurak kartzelak eta bide-bazterrak betetzei ekin zion eta azkenean Historiaren bere bertsioa ezarri zuen.

Carlos Hernández idazleari esker, oraintsu jakin izan dogu Espainian 303 kontzentrazio-esparru egon zirela. Horiei gehitu behar zaizkie dozenaka eta dozenaka kartzela, mundu errepublikanoaren aurkako errepresioari eusteko. Konpromisoa eta ideia errepublikanoengatik kartzelaraturako gizon-emakume haiek gure memoria demokratikoaren parte dira eta berez euren izenak Historiarako berreskuratzea betebehar demokratikoa da. Hala ere, honelako ardurak askotan elkarrekin eta familiarterako taldeek hartu behar izan dute bere gain, ekinaren ekinez zatirik zati memoriaren puzzlea berreskuratuz arte.

Trantsizioaldiak ahaztuta utzi zituen bide-bazterretan eta artxiboetan diktadurak jazarritako milaka pertsona. Eta horrek gogoeta ekarri behar du ezinbestean: memoria, lehenago edo beranduago, nahi ez bada ere, hortxe agertzen da. Horregatik ba, min eman arren, merezi du gogoratzea eta ikertzea, gizarte moduan era horretan baino ezin izango dugulako aurrera egin.

Oliverio Gorondo poeta argentinarrak idatzi zuen “bakarren batek neugan pentsatuz gero, oroipena izango naiz”. Eta bere konpromisoagatik errepresaliaturako pertsona haiek guztiak gogoan dauzkagu pauso bakoitzean. Beldur-ikarakerak jota bizi izan ziren familia errepublikano haiek oroipena duintasunez beterik transmititu dute. Sukaldeko isiltasunean, beldurraren horma zabalaren artean, baina egin egiten zen. Horregatik, era batera edo bestera memoria-herentzia horren zordunak gu geu gara.

Isiltasuna, batzuetan ahaztuen bandera izan da. Bizirik irautea, frankisten begien bistan egotea eusteko era bat izan zelako. Alejandro Ruiz-Huerta Atochako lan-arloko abokatuen sarraskitik bizirik irtendako azkenak honela zioen: “Hiltzaileei neure isiltasunaz erantzuten diet”.

Ikerketan jardutea, kartzela frankistei argi egitea, hori ere bada hiltzaileen aurrean bizirik irauteko modu bat. Kartzela-sistema frankistak giltzapean gordetzea baino gehiago bilatu nahi izan zuen. Bizitza-baldintzak kontuan hartuta, sarri pertsona preso sarraskia zen helburua. Hargatik ba, hain dira ugariak hildako presoak, ia beti neumoniak edo tuberkulosiak jota. Baina, Ernesto Carratalá Ezkabako gotorlekuan egondako preso errepublikanoak zioen bezala, “egon badaude hildakoen heriotzak eta inork hildakoen heriotzak”.

Gernikako Gerra-Presoen Ospitale Militarrean gertatutakoari argi egiteko Pipergorri eta Gernikazarraren lanak betetzen du unibertso errepublikanoak bizi izan duen justizia-hutsune hori. Memoriala eraikitzea, honelako liburua idaztea edo besterik ez daukan familiarterako bati heriotza-akta ematea da memoriaren funtziorik garrantzitsuenetako bat, gertaeraren lekuko bihurtzen delako.

PRÓLOGO: EL PUZZLE DE LA MEMORIA

A la Guerra Civil le sucedió una dictadura larga y cruenta. Y ello ha marcado la forma en la que hemos tenido que afrontar la reconstrucción de la memoria republicana. Porque el franquismo se impuso, implacable, en todos los ámbitos. Después de fusilar o enviar al exilio a miles de personas y bombardear a la población civil, la dictadura siguió llenando cárceles y cunetas y terminó por imponer su versión de la Historia.

Recientemente, y gracias al estudio del escritor Carlos Hernández, hemos sabido que en España hubo 303 campos de concentración. A ello hay que sumarle las docenas y docenas de cárceles que servían para mantener la represión hacia el mundo republicano. Aquellos hombres y mujeres que fueron encarcelados por su compromiso y sus ideas republicanas forman parte de nuestra memoria democrática, y recuperar sus nombres para la Historia es, por eso, una obligación democrática. Sin embargo, semejante responsabilidad la han tenido que asumir en la mayoría de las ocasiones asociaciones y grupos de familiares que iban, pieza a pieza, reconstruyendo el puzzle de la memoria.

El periodo de la Transición olvidó en cunetas y archivos a las miles de personas que fueron perseguidas por la dictadura. Y ello debe provocar una reflexión: la memoria tarde o temprano, aunque no se quiera, aflora. Así que merece la pena recordar e investigar, aunque duela, porque solo así podremos avanzar como sociedad.

Escribió el poeta argentino Oliverio Girondo que “basta que alguien me piense para ser un recuerdo”. Y a todas estas personas represaliadas por su compromiso los pensamos a cada paso. Aquellas familias republicanas que vivieron muertas de miedo han transmitido su recuerdo con mucha dignidad. Se hacía en el silencio de las cocinas, bajo las paredes anchas del miedo, pero se hacía. Por eso, de alguna manera nosotros y nosotras somos deudores de esa herencia memorialística.

El silencio, a veces, ha sido la bandera de los olvidados. Porque sobrevivir, estar presente a los ojos de los franquistas, fue una forma de resistir. Lo decía el último superviviente de la matanza de los abogados laboristas de Atocha, Alejandro Ruiz-Huerta: “A los asesinos les respondo con mi silencio”.

Investigar, poner luz sobre las cárceles franquistas, es también una forma de sobrevivir ante sus asesinos. El sistema carcelario franquista no solo buscaba el encierro. Dadas las condiciones de vida, en muchas ocasiones también buscaba el exterminio de las personas presas. Por eso son tan numerosos los presos que murieron, casi siempre por neumonía o tuberculosis. Pero, como decía el preso republicano Ernesto Carralá, que estuvo en el fuerte de Ezkaba, “hay muertes de morir, y muertes de matar”.

El trabajo de Gernikazarra y Pipergorri esclareciendo lo sucedido en el Hospital Militar de Prisioneros de Guerra de Gernika viene a colmar ese vacío de justicia en el que ha vivido el universo republicano. Levantar un memorial, escribir un libro como este o entregar una partida de defunción a un familiar que no tiene otra cosa es, en realidad, una de las funciones más importantes de la memoria porque deja constancia de lo que sucedió.

GERNIKAN HIL

GERNIKAKO GERRA-PRESOEN OSPITALE MILITARRA
(1938-1940)

José Ángel Etxaniz Ortúñez

Vicente del Palacio Sánchez

GERNIKAZARRA historia taldea

Gernika-Lumo 1936an

1 936ko uztailean Gernika-Lumo eskualde bateko geografia- eta zerbitzu-zentroa zen, batez ere nekazaritza eta arrantza arloan. Armen eta munizioen fabrikazioaren, mahai-tresnen, makina-erreminten eta esnekien industria indartsua ekonomiaren oinarria zen, eta, horrekin batera merkataritzan eta ostalaritzan oinarritutako zerbitzuen sektorea gero eta handiagoa zen hirigune bat eratzen hasi zen.

Arlo demografikoan, 1936ko uztailean, Gernika-Lumok 5.630 biztanle zituen (2.504 gizon eta 3.126 emakume). Bonbardaketaren ondorioz tokiko artxiboak guztiz suntsituta geratu zirenez (Udala, Jabetza Erregistroa, Notarioa, Elizakoa, etab.), ezin izan dugu funtsezko datu gehiago jakin, hala nola udal-errolda edo 1936an zeuden eraikinen kopuru zehatza. 1937an, 424 eraikin zeuden udalerrian, eta horiei Ajangizko udalerriko Errenteria auzoko hiri-bilbeari zegokion zatia gehitu beharko litzaioke, Gernikako hiri-bilbearen jarraipentzat har zitekeena.

Politikoki, Gernika-Lumo, II. Errepublikako hauteskundeetan izandako emaitzen araber, biztanleria tradizional eta kontserbadorea zen batez ere. EAJk hautesleen %50 ordezkatzen zuen; eskuin tradizionalak (karlista) eta kontserbatzaileak (Alfontsoarrak) %40. Ezkerrak, hau da, Bizkaian Fronte Popularra osatzen zuten indarrek hautesleen %10 ordezkatzen zuten tokian-tokian, eta alderdi horiek honako hauek ziren: PSOE, Ezker Errepublikarren aldeko errepublikanoak, PCE eta ezker nazionalismoa Eusko Abertzale Ekintzak ordezkatuta.

GERRA ZIBILA

BONBARDAKETA ETA KALTEAK

Gerra zibilean, Gernika-Lumoko bizimodua lasai-samar igaro zen; izan ere, atzeguardia herria izan zen, horrek zekartzan abantaila eta eragozpen guztiekin. Frontea Mar-kinan zegoen arren, 20 km-ra, gerra hurbil bizi izan zuten gernikarrek kuartelak eta ospitale militarrek zituelako. Ez zen eskasia edo gabeziarik jasan, baina produktuen errazionamendua bai pairatu zuten. Haien egunerokotasuna, ordea, normalegia izan

MORIR EN GERNIKA

EL HOSPITAL MILITAR DE PRISIONEROS DE GUERRA DE GERNIKA
(1938-1940)

José Ángel Etxaniz Ortúñez

Vicente del Palacio Sánchez

Grupo de historia **GERNIKAZARRA**

Gernika-Lumo en 1936

En julio de 1936 la localidad de Gernika-Lumo era el centro geográfico y de servicios de una comarca, Busturialdea, eminentemente agrícola y pesquera. Una potente industria de fabricación de armas y municiones, cubertería, máquina-herramienta y productos lácteos, conformaban la base de su economía, configurando asimismo un núcleo urbano con un emergente sector de servicios basado en el comercio y la hostelería.

Demográficamente, en julio de 1936, Gernika-Lumo tenía 5.630 habitantes de hecho (2.504 hombres y 3.126 mujeres). La ausencia de archivos locales (Ayuntamiento, Registro de la Propiedad, Notaría, Eclesial, etc.) destruidos en su totalidad por el bombardeo, no nos ha permitido conocer más datos fundamentales como por ejemplo el Padrón Municipal, o el número exacto de edificios existentes en 1936. En 1937, la cifra de edificios del municipio alcanzaba los 424, a los que habría que añadir la parte de trama urbana del barrio de Rentería del municipio de Ajangiz, como una continuidad de la trama urbana guerniquesa.

Políticamente, Gernika-Lumo era, a tenor de los resultados electorales habidos en las distintas elecciones celebradas durante la II República, una población eminentemente tradicional y conservadora. El PNV representaba electoralmente al 50%; la derecha tradicional (carlista) y conservadora (alfonsina) al 40%. La izquierda, representada por el PSOE, los republicanos de Izquierda Republicana, el PCE y el nacionalismo de izquierdas, representado por Acción Nacionalista Vasca, es decir, el conjunto de fuerzas que conformaron el Frente Popular en Bizkaia, representaban localmente al 10% del electorado.

LA GUERRA CIVIL

EL BOMBARDEO Y LOS DAÑOS

En plena guerra civil, la vida en el municipio de Gernika-Lumo, una población de retaguardia, con todas las ventajas e inconvenientes que ello suponía, discurrió con



Gernika-Lumo. Adolfo Urioste - Tren geltokia.
(Gernikazarra A.)

zen garai horretarako. Fabrikak erritmo bizian aritu ziren lanean, elizek kultura ospatu zuten, eta kirolak, gizarte- eta kultura-ekitaldiak eta ekintza politikoak erregularitasunez egin ziren, baina frontetik soldadu hilak iritsi zirenean gerra giroa nabaria zen.¹

Tropa frankisten erasoaldi geldiezi-naren aurrean armada errepublikanoa atzera egiten zegoela, 1937ko apirilaren

26an, 16:30etik 19:45era bitartean, Gernika-Lumoko udalerrria Alemaniako Condor legioaren eta Italiako Aviazione Legionariaren hegazkinek gehi frankista nazionalen² hegazkin batzuk herria aldiro-aldiro bonbardatu zuten. Hegazkin hauen eraso, ponpa-apurtzaileak lehenengo eta ponpa su-eragileak gero, esperimentalak izan zen. Eraso horrek ondasunei eta pertsoneri kalte izugarriak eragin zizkieten eta historiarako eztabaida amaigabea zabaldu zen egun hartan gertatutakoari buruz, oraindik ere, 85 urte igarota, kasuren batean irauten duena³.

Ez dakigu zer kalte pertsonal izan ziren. Jakina, orduan emandako zifra ofizialak eta bonbardaketaren existentzia ukatzea izan ziren sasoi hartako propaganda, hau da, gerran erabilitako beste arma bat. Azken ikerketa zientifikoek (Gernikazarra historia taldea, 2012an, eta Gogora –Memoriaren Euskal Institutua–, 2018-2019an) ez dute ehun eta erdi hildako baino gehiago kuantifikatzea lortu, eta egile batzuek nabarmendu dute ez dela gai itxia⁴. Hala ere, eta dauden dokumentu-hutsuneak gorabehera, esan daiteke hildakoen kopurua ez zela berrehun eta berrogeita hamarretik gorakoa izan.

Bestalde, kalte materialak oso handiak izan ziren, eta, gobernu frankistak argitaratutako datu ofizialen arabera (Herrán txostena), Gonzalo de Cárdenasek emandakoak (Errautsitako Eskualdeen -*Regiones Devastadas*- organismo ofizialeko arduradun gorena, gerora herriaren zati bat berreraiki zuena), 271 etxebizitza izan ziren hondatutakoak: guztizkoaren %71 erabat suntsitu zen, %7k kalte handiak jasan zituen, eta %22k, berriz, kalte arinak. Etxebizitza, eraikin publiko eta azpiegitura gehienak erabat suntsituta geratu ziren. Eraikinen %1 bakarrik geratu zen ukitu gabe. Gernikako Arbola, Pasealekua eta bertako eskola-eraikinak bezalako toki enblematikoek ez zuten kalterik jasan, baina Andra Mariaren parroikia-eliza hurbil zegoen arren, sakristiak su hartu zuen. Era berean, herriko beste mutur batean, trenbidearen ekialdean dagoen inguru guztia, fabrika guztiak zeuden industrialde trinkoa, gerrako materialaren industriak barne, ukitu gabe geratu zen. Ofizialki, *gerra-ekintzak eragindako kalteak* (agintariak

1. Granja Saiz y Echaniz Ortúñez 1998.

2. Bonbardaketa-operazioan parte hartu zuten aparatuen armarren parte gisa Espainiako hegazkinak zuten presentziari buruzko datu berria, Estatu Nagusiko Aire Burutzaren 221 zenbakia duen parteako 3. Atalean "Resumen de las Operaciones del día 26 de abril de 1937" dago jasota. Dokumentu hori Aireko Armadaren artxiboan dago, eta Ignacio Luque Aranak eman zion Gernikako Bonbardaketaren Dokumentaziorako zentroari eman zion, eta zentro horrek modu egokian laga zigun.

3. . Echaniz Ortúñez y Landa Montenegro 2001b:255-275

4. Unzueta Kareaga 1997: 39-49. Gernikazarra 2012. Gogora 2019.

relativa tranquilidad. Aunque el frente estaba en Markina, a 20 kms., convivió con este al contar con cuarteles y hospitales militares. No pasó escasez ni penurias pero vivió el racionamiento de productos. Su cotidianidad sin embargo fue demasiado “normal” para los tiempos que corrían. Sus fábricas trabajaron a fuerte ritmo, las iglesias celebraron el culto y, deportes, actos sociales y culturales, así como los políticos, se celebraron con regularidad, aunque la llegada de soldados muertos del frente colocaba en su sitio el clima imperante¹.

En plena retirada del ejército republicano por la imparable ofensiva y avance de las tropas franquistas, el 26 de abril de 1937 entre las 16,30 y las 19,45 horas, el municipio de Gernika-Lumo sufrió una serie de oleadas de aviones alemanes de la Legión Cóndor e italianos de la Aviazione Legionaria, junto con algunos aparatos de la aviación “nacional” franquista², que bombardearon sistemáticamente la localidad, en un ataque experimental con bombas rompedoras primero, y una oleada de incendiarias después, produciendo terribles daños en bienes y personas y abriendo para la historia una interminable controversia sobre lo acontecido aquel día, y que aún, transcurridos 85 años, todavía en algún caso perdura³.

Los daños personales habidos se desconocen. Obviamente, las cifras oficiales entonces facilitadas, como la propia negación de la existencia del bombardeo, no fueron más que la utilización de la propaganda como otra arma más en la guerra. Las últimas investigaciones científicas (Gernikazarra Historia Taldea, en 2012, y Gogora -Instituto Vasco de la Memoria- en 2018-2019), no han conseguido cuantificar más de centenar y medio de muertos, resaltando algunos de los autores que no es un tema cerrado⁴. No obstante, y a pesar de las lagunas documentales existentes, se puede afirmar que la cifra de muertos no sobrepasó los dos centenares y medio.

Por su parte, los daños materiales fueron muy cuantiosos, y según los propios datos oficiales hechos públicos por el gobierno franquista (Informe Herrán) y facilitados por Gonzalo de Cárdenas, alto responsable del organismo oficial Regiones Devastadas que reconstruyó después parte de la localidad, estos alcanzaron a 271 casas: el 71% del total se destruyeron por completo, un 7% sufrió grandes daños y otro 22% daños leves. La mayoría de las viviendas, edificios públicos e infraestructuras, quedaron totalmente destruidos. Solamente el 1% de los edificios quedaron intactos. Lugares emblemáticos como el complejo de la Casa de Juntas con el Árbol de Gernika, el *Pasealeku* y sus edificios escolares no sufrieron daño alguno, no así la cercana iglesia parroquial de Santa María, que, aunque no fue alcanzada, sufrió un incendio en la sacristía. Así mismo en otro extremo de la localidad, toda la zona situada al este de la vía del ferrocarril, la compacta zona industrial, donde se hallaban localizadas todas las fábricas, incluidas las industrias de material de guerra, quedó completamente intacta. Oficialmente los daños *causados por la acción de guerra* (siempre evitaron las autoridades la

1. Granja Sainz y Echaniz Ortúñez 1998.

2. El dato, nuevo, de la presencia de la aviación española como parte integrante de las escuadrillas de aparatos que tomaron parte en la operación de bombardeo está constatado en el parte nº 211 de la Jefatura del Aire, Estado Mayor, 3ª Sección “Resumen de las Operaciones del día 26 de abril de 1937”, documento existente en el archivo del Ejército del Aire y proporcionado por Ignacio Luque Arana al centro de Documentación del Bombardeo de Gernika y que nos fue amablemente cedido por dicho centro.

3. Echaniz Ortúñez y Landa Montenegro 2001b: 255-275.

4. Unzueta Kareaga 1997: 39-49. Gernikazarra 2012. Gogora 2019.

beti alde batera utzi zuten bonbardaketa hitza)⁵ 12 milioi pezetatan kuantifikatu ziren (Cárdenas 1940: 29).

Erabateko suntsiketak eraikin enblematikoak hartu zituen, hala nola Udaletxea, tren geltokia (bideak, kotxetegiak eta tailerrak ukitu gabe geratu ziren), edo pilota frontoia; asistentzialak, hala nola asilo Calzada (pabiloietako bat); instituzionalak, hala nola Ins-trukzio Epaitegiak, Notariotza eta Jabetza Erregistroa. Ondorengo sutean tokiko era-kunde publiko eta pribatu horien guztien artxiboak desagertu ziren, baita familiakoak eta pertsonalak ere, eta horrek eragozpen handiak eragin zizkien kaltetuei, herriko memoriari eta bertako pertsonari. Memoria historikoa berreskuratzeko lanak 1985ean hasi ziren modu sistematikoan, *Gernikazarra* historia taldearen bidez.

Ekintza exekragarri horren ondorioz, herritarren multzo batek ihes egin zuen alde egiten zegoen euskal Armada errepublikanoaren ondora, lehenengo Bilbora, gero San-tanderrera eta azkenik, ehunka batzuk Asturiasera. Bertako biztanle askok itsasontziz ihes egin ahal izan zuten Kantauriko portuen bidez, eta Europako hainbat herrialdetan erbesteratu ziren. Gernika-Lumo ia hutsik geratu zen⁶. Ondoren, erbesteratu gehienak itzuli egin ziren.



Gernika-Lumo.
Artekalea eta
ingurua.
(Gernikazarra A.)

GERRAOSTEA (1937-1940)

“NAZIONALEN” SARRERA

Gernika-Lumon, Nafarroako IV. Brigadaren tropak sartu ziren, Camilo Alonso Vega koronelaren eta Capalleja teniente koronelaren agindupean, bere Erregularren Taula-rekin (Marokoko tropa mertzenarioak), apirilaren 29ko 08:30ean –Bonbardaketa izan eta hirugarren egunean–, eta topatu zutena izan zen erabat hondatuta zegoen herria, oraindik keta zeuden aurriak eta biztanle gutxi. Karlista-ateratze lehen soldaduen buru ideologia hori zuten gernikarrak egon ziren, eta hauek, egun horretako 11:00etatik 13:00etara, herriko okupazioa burutu zuten. Batzar Etxea lehenengo okupatu zuena Erregularren Taborra izan zen, nahiz eta ordu batzuk geroago erreketek ohorezko guardia bat jarri zuten arbolaren ondoan. Gernikarrentzako gerra amaitu zen, eta garai historiko latzena hasi zen: gerraostekoa.⁷

5. Palacio Sánchez y Zarrabeitia Bengoa 2001b: 235-253

6. Exilioaz. Palacio Sánchez 2001a: 37-50

7. Gerraostea gerra baino gogorragoa gogoratzen dute bonbardaketatik bizirik atera zirenek.

palabra bombardeo)⁵ fueron cuantificados económicamente en 12 millones de pesetas (Cárdenas 1940: 29).

La destrucción total abarcó a edificios emblemáticos como el ayuntamiento, la estación del ferrocarril (las vías, cocheras y talleres resultaron intactos), o el frontón de pelota; asistenciales como el asilo Calzada (uno de sus pabellones); institucionales como los Juzgados de Instrucción, la Notaría y el Registro de la Propiedad. En el posterior incendio desaparecieron los archivos de todas estas instituciones públicas y privadas locales, así como los familiares y personales, con el consiguiente perjuicio para los afectados y para la memoria de una localidad y sus personas. Las labores de recuperación de la memoria histórica se iniciaron de forma sistemática en 1985 a través del grupo de historia *Gernikazarra*.

Este execrable acto hizo que una parte de la población huyera junto al Ejército vasco-republicano en retirada, primero hacia Bilbao, después a Santander y, por último, unos centenares a Asturias. Muchos de sus habitantes pudieron huir en barco a través de los puertos cantábricos y exiliarse en distintos países europeos. Gernika-Lumo quedó casi deshabitada⁶. Posteriormente la mayoría de los exiliados retornaron.

LA POSGUERRA (1937-1940)

LA ENTRADA DE LOS “NACIONALES”

La entrada de los “nacionales” en Gernika-Lumo, las tropas de la IV Brigada de Navarra al mando del Coronel Camilo Alonso Vega, y del Teniente Coronel Capalleja con su Tabor de Regulares (tropas mercenarias marroquíes) se inició a las 8,30 horas del día 29 de abril, -tres días después del bombardeo-, encontrándose con un paisaje de ruinas humeantes, totalmente devastada y con apenas habitantes. Al frente de los primeros soldados de extracción carlista estuvieron oficiales guerniqueses de dicha ideología, quienes entre las 11 y las 13 horas completaron la ocupación de la localidad, siendo el Tabor de Regulares quien primero ocupó la Casa de Juntas, aunque horas después los requetés colocaron una guardia de honor junto al Árbol. La guerra para los guerniqueses había finalizado y comenzaba la más terrible época histórica que se recuerda: la posguerra⁷.

La primera decisión importante que adoptaron las autoridades militares fue declarar la localidad “cerrada” con el objeto de retirar de la misma todo vestigio del bombardeo habido. Mediante personal militar se retiraron los restos humeantes de bombas que había entre los escombros, a la vez que se solicitó personal a los pueblos de los alrededores para desescombrar, tratando de borrar las huellas de lo acontecido⁸. Días después, en mayo, una comisión de militares alemanes visitó la localidad para “estudiar lo acontecido” y tratar de “maquillar” su acción⁹.

El nuevo Ayuntamiento franquista, una Gestora Municipal nombrada por las autoridades militares, se planteó rápidamente, por distintos motivos, la reconstrucción de

5. Palacio Sánchez y Zarrabeitia Bengoa 2001b: 235-253.

6. Sobre el exilio: Palacio Sánchez 2001a: 37-50.

7. La posguerra es recordada por los supervivientes del bombardeo como mucho más dura que la guerra..

8. Palacio Sánchez e Iturrarte Martínez 1995: 33-34.

9. De ello se desprende la fuerte campaña de prensa e intoxicación que desarrolló el bando franquista acusando a los “rojo-separatistas” de haber incendiado y dinamitado la localidad.

Agintari militarrek hartu zuten lehenengo erabaki garrantzitsua izan zen, herri “itxia” izendatzea, izandako bonbardaketaren aztarna guztiak bertatik kentzeko. Pertsonal militarren bidez, obra-hondakinaren artean zeuden ponpa-hondar hezeak kendu ziren, eta inguruko herriei hondakinak kentzeko eskatu zitzairen, gertatutakoaren aztarnak ezabatzen saiatzeko⁸. Egun batzuk geroago, maiatzean, Alemaniako militarren batzorde bat joan zen herrira, eta, bertan, gertaturikoa aztertu eta bere ekintza “makillatzen” saiatu zen.⁹

Udal frankista berriak, agintari militarrek izendatutako Udal-kudeatzailea, Gernika-Lumo berreraikitzea planteatu zuen berehala, hainbat arrazoirengatik. Alde batetik, erregimen frankista berriak ahalik eta lasterren ezabatu nahi zituelako sarraskiaren aztarnak, eta, gainera, tokiko sektore karlista indartsua pozik egotea nahi zuen, Gernika-Lumok foraltasunaren sinboloa adierazten baitzuen haientzat. Bestetik, gerra zibilean garaile izan zirenek zuten “kontzientzia-arazoa”; euren herria berreraikitzea, euren alderdikideek bonbardaketa masiboaren bidez deuseztatua: beren herriak berreraikitzea, bonbardaketa masiboaren¹⁰ bidez. Azkenik, fabriketan lan egiten zuten langileentzako etxebizitzak behar ziren; izan ere, bonbardaketan ezkutuan zeudenez, hain beharrezkoa zen gerrarako armen eta munizioen ekoizpenak jarraitu egin zuen. Horrela, berreraikitzea funtsezko zutabea izan zen propaganda frankista zabaltzeko: *Rojo-separatistek suntsitu egiten dute, eta Espainia Berriak eraiki egiten du.*

ERREPRESIOA

Errepublikaren erregimena indarrean zegoen bitartean, errepresioa beste leku batzuetan bezala gauzatu zen honako hauengan: kargu politikoak, instituzionalak, erantzukizunekoak eta abarrak. Bilbo erori zenean – Ekainaren 19an –, hainbat gernikar harapatu zituzten, mobilizatutakoak edo mobilizatu gabeak, adina, egoera, lanbidea eta abar zirela eta. Kontzentrazio-esparruetan edo espetxeetan sailkatu ondoren, batzuk Armada Nazionalera mobilizatu zituzten, beste batzuk Langileen Batailoietara, eta beste batzuk prozesatu eta epaitu ondoren, espetxean sartu zituzten. Ia guztiei eman zien indultua 1942an. Errepresioaren gogortasun handiena, ordea, Fronte Popularreko kideen artean gertatu zen, eta gogorragoa sozialisten artean. Gernika-Lumon bi fusilatu egon ziren, biak sozialistak: Juan Carlos Iturri Soroa (Gernika 1899 -Bilbo 1937), tokiko buruzagi bikaina, eta Clemente López-Briñas Muga (Villalba de Rioja 1877-Bilbo 1937), tokiko buruzagi historiko bat. Gernika-Lumoko Udalean kudeatzaile izan ziren II. Errepublikan¹¹.

Gerra galdu zutenentzat beren bizitzako unerik gogorrenetako bat etorri zen. Xahututa, umiliatuta, lurperatuta, etxerik gabe, eskubiderik gabe, errepresio politiko eta ekonomikoa pairatuta, utzarazita, gernikar askok gerra bezain bide latza hasi zuten.

MISERIA ARTEAN BIZITZEA ETA BERRERAIKITZEA

8. Palacio Sánchez eta Iturriarte Martínez 1995:33-44.

9. Hortik hedatu zen alderdi frankistak egin zuen prentsa- eta intoxikazio-kanpaina gogorra, eta “rojo-separatistei” leporatu zien herria erre eta dinamitatu izana

10. Egin ez den eta ia egiterik ez dagoen ikerketa-lanetako bat da gerratik bizirik atera ziren eta gerra irabazi zuten gernikarren bonbardaketari buruzko iritzia ezagutzea, altxaera aldekoena.

11. Errepresio frankistaren gaia oraindik ere gai tabua da Gernikako gizartean, kontuan hartuta errepresio errepublikano-nazionalista, berrogeita hamar pertsona baino gehiago kartzelatu zituela, nahikoa historiatuta dagoela eta frankistaren ankerkeria ez zuela izan. (Landa Montenegro 1998:261-338)

Gernika-Lumo. Por una parte, al nuevo régimen franquista le interesaba borrar con la mayor celeridad las huellas de su masacre y, además, contentar al potente sector carlista local, para quienes Gernika-Lumo significaba un símbolo de la foralidad. Por otro, solucionar el ineludible “problema de conciencia” que tenían los guerniqueses triunfadores en la guerra civil: la reconstrucción de su pueblo que había sido destruido por sus propios correligionarios mediante el bombardeo masivo¹⁰. Por último, se necesitaban viviendas para los obreros que trabajaban en las fábricas, que al resultar intactas en el bombardeo, proseguían su producción, tan necesaria, de armas y municiones para la guerra. Así, la reconstrucción constituyó un pilar fundamental para la propaganda franquista: *los rojo-separatistas destruyen, la Nueva España construye*.

LA REPRESIÓN

La represión se materializó como en otros lugares, en aquellos que habían destacado por sus cargos políticos, institucionales, de responsabilidad etc., durante la vigencia del régimen republicano. A la caída de Bilbao -el 19 de junio- numerosos guerniqueses estuvieran o no movilizados, por su edad, su condición, profesión, etc., fueron capturados. Tras su clasificación en Campos de Concentración o Prisiones, unos fueron movilizados en el Ejército Nacional, otros en Batallones de Trabajadores, mientras que otros tras ser procesados y juzgados, ingresaron en prisión. Casi todos ellos se beneficiaron del indulto de 1942. La máxima dureza de la represión, sin embargo, se cebó de manera expresa en los miembros del Frente Popular y con más dureza en los socialistas. En Gernika-Lumo únicamente hubo dos fusilados, los dos socialistas: Juan Carlos Iturri Soroa (Gernika 1899 -Bilbao 1937), un brillante dirigente local, y Clemente López-Briñas Muga (Villalba de Rioja 1877-Bilbao 1937), un histórico dirigente local. Ocuparon puestos como gestores en el Ayuntamiento de Gernika-Lumo durante la II República¹¹.

Para los que perdieron la guerra se abrió una de las páginas más duras de su vida. Derrotados, humillados, desterrados, sin techo, sin derechos, represaliados política y económicamente, desahuciados, muchos guerniqueses iniciaron un dramático camino tan difícil como la propia guerra.

VIVIR Y RECONSTRUIR ENTRE MISERIA

En aquel escenario que se prolongó durante la guerra y época inmediatamente posterior a esta, las penurias económicas, materiales y humanas, en una población tan devastada, retrasaron de facto las labores de reconstrucción, y tardaron años en culminarlas. La envergadura que planteaba Gernika-Lumo para su reconstrucción difícilmente podía ser abordada sin una ayuda plena del Estado. Para ello, el día 12 de octubre de 1939, la villa foral se acogió a la Ley de Adopción del 23 de setiembre, mediante la cual el general Franco, en calidad de Jefe del Estado, adoptaba bajo su protección a la localidad¹². Con ello, el Estado, se hacía cargo de su reconstrucción, adoptando

10. Una de las labores de investigación no realizadas y ya casi imposible de llevarse a cabo, es la relativa a conocer la opinión sobre el bombardeo de los guerniqueses supervivientes del mismo, que ganaron la guerra como adscritos al bando alzado.

11. El tema de la represión franquista es todavía un tema tabú en la sociedad guerniquesa, teniendo en cuenta que la represión republicano-nacionalista, que encarceló a más de medio centenar de personas, está ya suficientemente historizada y no tuvo la crueldad de la franquista. (Landa Montenegro 1998: 261-338).

12. En un acta municipal leemos: “en el año 1939 nuestro pueblo fue adoptado para la reconstrucción, con lo que además el vecindario puede gozar de un régimen tributario especial”.

Gerran eta gerra osteko lehenengo zatian, kalte ekonomiko, material eta gizatiarrek, hain hondatuta zegoen biztanleria batean, berreraikuntza-lanak atzeratzea ekarri zuen, eta urteak behar izan zituzten lan horiek amaitzeko. Gernika-Lumo berreraikitzeko behar zen ahalegin itzela nekez gauza zitekeen Estatuaren erabateko laguntzarik gabe. Horretarako, 1939ko urriaren 12an, foru-herriak irailaren 23ko Adopzio Legeari heldu zion. Lege horren bidez, Franco jeneralak, estatuko buru gisa, bere babespean hartu zuen herria¹². Horren bitartez, Estatuak bere gain hartu zuen etxebizitza horiek berreraikitzeko ardura, eta, horretarako, lursailak, orubeak eta era guztietako ondasunak desjabetzeko neurriak hartu zituen, etxebizitza berriak eraikiz foru-herriaren urbanizazio berrirako beharrezkoak zirenak. 1939ko abenduan, plan hori diseinatuta zegoen, eta egileak Gonzalo de Cárdenas (Eskualde Degradatuen zuzendariordea) eta Luis María de Gana (Bizkaiko Probintzia Batzordeko burua) izan ziren. Berreraikitzeko plan hori, Gernikako Udalaren arabera, urtebete lehenagotik eginda zegoen, eta, horren ondorioz, berreraikitzeko lanak 1940tik aurrera (Mur 1987:12-13) hasi ziren.

Suntsipenaren handitasunaren aurrean, herrian geratu ziren biztanle gehienak, mila inguru, etxebizitzarik gabe, etxerik gabe aurkitu ziren. Horregatik, ostatu bat bilatu behar izan zuten. Batzuk, herri-bazterrean edo aldirietan geratu ziren etxe bakanetan hartu zituzten. Horretan, oso garrantzitsua izan zen familia-lotura edo adiskidetasuna. Beste kasu batzuetan, alderdi irabazleko kide zirenek zuten botere handian kontuan izanda, nahi izan zuten lekuetan sartu ziren. Hiru familiak, lauk eta gehiagok, etxebizitza bat, partekatu zuten. Libre zeuden toki guztiak pertsoneri ostatu emateko egokitu ziren. Egoeraren zelakoa zen jakiteko hurrengo datua da adierazgarria: 1940ko abenduaren 31n Udal Erroldan zeuden biztanleak 825 baino ziren¹³, eta beste 400 Sukarrietan daude. 1942ra arte, herrigunea erabat hustuta egon zen, dozena erdi etxe izan ezik. Etxe horiek, miragarria bada ere, osorik geratu ziren¹⁴.

Egoera horren aurrean, militarrek eta agintari berriek neurriak hartu zituzten hain hondamendi suntsitzailea arintzeko. Sukalde publikoak prestatu zituzten herritarren-



Gernika-Lumo. Labores de desescombros. (Gernikazarra A.)

12. Udal akta batean honako hau irakur dezakegu: "1939an gure herria berreraikitzeko adoptatua izan da, eta, beraz, auzotarrek zerga-araubide berezia izan dezakete."

13. GLUA. Udal Erroldan 1940-12-31ko datan izena eman zuten bizilagun (bertakoak eta kanpokoak) eta pasokoak. Harrigarria da eman zen zifra ofiziala, 3.381 biztanle, historiaren uztarrietara igaro dena.

14. Etxe horiek Asilo Calzada eta Adolfo Urioste kaleetan egon ziren.

medidas para la expropiación de terrenos, solares, y bienes de toda clase que fueran necesarios para la nueva urbanización de la villa foral, mediante la construcción de viviendas. En diciembre de 1939 este plan ya estaba trazado, siendo sus autores los arquitectos Gonzalo de Cárdenas, subdirector de Regiones Devastadas, y Luis María de Gana, jefe de la Comisión Provincial de Vizcaya. Un plan de reconstrucción, que según el Ayuntamiento guerniqués, estaba ya realizado desde un año antes, lo que propició que las labores de reconstrucción se iniciaran a partir de 1940 (Mur 1987: 12-13).

Ante la magnitud de la destrucción, los habitantes que se quedaron en la localidad, cerca de un millar, se encontraron en su mayoría sin una vivienda, sin un techo. Por ello tuvieron que buscar un alojamiento. Unos, haciéndolo en las pocas casas que, situadas en los arrabales o extrarradio, pudieron acogerles. Aquí jugó un papel importante el lazo familiar o la amistad. En otros casos simplemente el poder dominante de quien pertenecía al bando vencedor y se introdujo donde quiso. Se llegaron a compartir por tres, cuatro y más familias, una vivienda. Todos los huecos disponibles fueron habilitados para alojar a personas. Para hacerse una idea de la situación, en el Padrón Municipal a fecha 31 de diciembre de 1940 sólo hay registrados 825 habitantes en la villa foral¹³, figurando otros 400 alojados en Pedernales. Hasta el año 1942 el casco urbano estuvo totalmente despoblado salvo algunas casas, media docena en total, que milagrosamente quedaron intactas¹⁴.

Ante esta situación los militares y las nuevas autoridades tomaron medidas para paliar tan devastador desastre. Habilitaron cocinas públicas para cocinar alimentos para la población. La población careció durante mucho tiempo de servicios esenciales como el agua corriente potable, luz eléctrica y saneamiento. Los transportes, sin embargo, funcionaron con las carencias del momento, interesándose principalmente en su mejora los empresarios fabricantes de armas. El ferrocarril, -algunos de cuyos edificios resultaron dañados-, improvisó una nueva estación provisional. Los servicios municipales se instalaron en edificios requisados. Así, el Ayuntamiento se estableció en la casa-chalé requisada a Sebero de Altube (Alcalde nacionalista durante la II República); el convento de las monjas Josefinas, en Mestika, fue habilitado como prisión, el colegio de los Agustinos como Hospital Militar y los pabellones industriales de "Los Pirineos S.A.", además de improvisada estación de ferrocarril, fueron utilizados como centro social, lugar de reuniones y de concentración del vecindario para actos patrióticos, así como para desarrollo de determinados espectáculos¹⁵.

La industria, que no resultó dañada por el bombardeo, comenzó a funcionar apenas un mes después de este. En junio de 1937 las fábricas guerniquesas, tanto las de armas "Unceta y Cía.", y "Talleres de Guernica S.A.", como las de cubertería y orfebrería "Joyería y Platería de Guernica S.A." y "Cubiertos y Orfebrería Amurrio S.A." trabajaron con la relativa normalidad que imprimía la situación de guerra, escasa mano de obra masculina -muerta en el frente o en prisión-, que fue su suplida por la mujer, a lo que se añadió la escasez de materias primas y energía que causó enormes problemas a la producción.

13. AAGL. Padrón de los vecinos y domiciliados (presentes y ausentes) transeúntes que se inscribieron a 31-12-1940. Sorprende la cifra oficial de 3.381 habitantes y que ha pasado a los anales de la historia

14. Estas casas estuvieron en las calles Asilo Calzada y Adolfo Urioste

15. Testimonio de Juan Bautista Etxaniz Zarandona. Junio de 2002.

tzako elikagaiak prestatzeko. Biztanleriak denbora luzez ez zuen oinarrizko zerbitzurik izan, hala nola edateko ur korrontea, argi elektrikoa eta saneamendua. Garraioek, ordea, orduko gabeziekin funtzionatu zuten, eta armak fabrikatzen dituzten enpresariak batez ere haiek hobetzeko interesa izan zuten. Trenbideak –eraikin batzuk kaltetuta geratu ziren– behin-behineko geltoki berri bat egin zuten. Udal-zerbitzuak konfiskatutako eraikinetan ezarri zituzten. Horrela, Udala Sebero de Altube jaunari (Alkate aber-tzalea II. Errepublikan zehar) erreklamatutako txalet etxean ezarri zen; Josefingar mojen komentua, Mestikan, espetxe gisa gaitu zen, bai eta Agustindarren ospitale militar gisa ere; eta “los Pirineos S.A.” -ren pabiloi industrialak, tren-geltoki inprobisatua izateaz gain, ekitaldi sozial, bilera-leku eta auzo-kontzentrazio gisa ere erabili ziren¹⁵.

Bonbardaketak ez zion kalterik egin industriari, eta handik hilabete eskasera hasi zen funtzionatzen. 1937ko ekainean, gerra-egoerak ematen zuen nolabaiteko normaltasunarekin lan egin zuten Gernikako lantegiek, “Unceta y Cía.” eta “Talleres de Guernica S.A.”, bezalako arma-lantegiek, zein “Joyería y Platería de Guernica S.A.” eta “Cubiertos y Orfebrería Amurrio S.A.” mahai tresna- eta urregintza-lantegiek. Gizonezkoen eskulan urria -frontean edo espetxean hildakoak-, emakumeek ordezkatu zuten. Horrez gain, produkzioan arazo handiak eragin zituen lehengai eta energia eskasiak.

Hondatutako populazioan, mota guztietako hondamendiak zeuden gizarte hartan, matxinatutako Armadaren goi-agintariak Gerra-Presoen Ospitale Militarra instalatzea erabaki zuen 1938an.

GERNIKA-LUMOKO ESPETXEA ETA PRESOK

Bonbardatu ondoren, Gernika-Lumon, preso politikoak espetxeratzeko hainbat leku jarri zituzten. Presoak *Pasealekuko* Eskola Publikoetan hartu zituzten lehenengo aldiz. Beste leku bat. *RRMM Josefinas* izeneko mojen komentua izan zen, Mestika auzoan, Errigoitiko errepidearen ondoan. Espetxe horrek preso komunak ere hartu zituen, eta espetxeratze-zentro gisa funtzionatu zuen 1938-1942 urteen artean. Hala ere, espetxeratze-zentro nagusia Agustindarren Elkargoan egon zen, hasieran Gerra- Presoen Ospitale Militar (1938-1940) gisa egokitua, eta, ondoren, zigorra berresteko Errautsitako Eskualdeei (1940-1946) atxikitako presoen Destakamentu Penala izan zen.

1938ko maiatzetik aurrera, Gernika-Lumon preso errepublikanoen presentzia era dokumentalean dago datatuta. Hasiera batean, horiek guztiak *Pasealekuko* Eskola Publikoetan kokatu zituzten, eta bertan egin zituzten egokitze-obrak ekainean, baina barneratze-lekua desegokia zenez eta jende askori ostatu emateko gai ez zirenez, beste leku egokiago batera eramateko kudeaketak egin zituzten. Horregatik, Josefingar komentura eraman ziren presoak, lehen aipatu dugun horretara. Presoek hondakinak kentzeko eta kaleak eta komunikazio-bideak irekitzeko lanak egin zituzten. Preso errepublikanoen beste talde handia Agustindarren Elkargoan ezarri zen, Gerra-Presoen Ospitale Militar izateko egokitua (GGPOM aurrerantzean).

GERNIKAKO GERRA-PRESOEN OSPITALE MILITARRA

Gerraren aurrerapenak, operazio militarren garapenak eta gatazkaren amaierak presoan gorakada nabarmena ekarri zuten. Espetxeen, kontzentrazio-esparruen eta lan-batailoien bitartez, kartzelen saturazioa arindu egin zen, fusilamenduez gain, es-

15. Juan Bautista Etxaniz Zarandonaren testigantza. 2002ko ekaina.

En aquella población devastada, en aquel escenario de penurias de todo tipo, el alto mando del Ejército sublevado decidió instalar en el año 1938 un Hospital Militar de Prisioneros de Guerra.

CÁRCEL Y PRESOS EN GERNIKA-LUMO

Después del bombardeo, en Gernika-Lumo, se ubicaron varios lugares para la reclusión de presos políticos. El primer lugar donde se alojó a prisioneros fueron las Escuelas Públicas del *Pasealeku*. Otro lugar fue el convento de las RR. MM. Josefinas, situado en el barrio de Mestika, junto a la carretera a Errigoiti. Esta prisión también alojó a presos comunes, funcionando como centro de reclusión entre los años 1938-1942. Sin embargo, el principal centro de reclusión estuvo situado en el Colegio de los Agustinos, acondicionado inicialmente como Hospital Militar de Prisioneros de Guerra (1938-1940) -HMPGG en adelante-, y que acogió posteriormente un Destacamento Penal de presos que redimían pena adscritos a Regiones Devastadas (1940-1946).

Desde mayo de 1938 está datada documentalmente la presencia de presos republicanos en Gernika-Lumo. Inicialmente, estos fueron alojados en las Escuelas Públicas del *Pasealeku*, lugar donde realizaron ellos mismos obras de acondicionamiento durante el mes de junio, pero ante lo inadecuado del lugar de internamiento y la incapacidad de las mismas para alojar al numeroso contingente, se llevaron gestiones para su traslado a otro lugar más adecuado. Por ello se trasladó a los prisioneros al Convento de las “Josefinas”, anteriormente citado. Estos presos llevaron a cabo labores de desescombro y apertura de calles y vías de comunicación. El otro gran contingente de prisioneros republicanos fue el que se instaló en el Colegio de los Agustinos acondicionado como HMPGG.

EL HOSPITAL MILITAR DE PRISIONEROS DE GUERRA DE GERNIKA

El avance de la guerra, el desarrollo de las operaciones militares y el final de la contienda, conllevaron un considerable aumento de los prisioneros. A través de los distintos establecimientos penitenciarios, campos de concentración y batallones de trabajo, la saturación de los establecimientos carcelarios se vio amortiguada, además de los fusilamientos, por la creación de nuevos lugares de reclusión, fundamentalmente con la creación de batallones de trabajadores, destacamentos penales y colonias penitenciarias.

Como complemento a todo ello estuvieron los centros de reclusión para los prisioneros enfermos, los hospitales militares. En ese complejo “hospitalario” jugó un determinado papel, el Hospital Militar ubicado en la “villa foral”. Por los datos de mortalidad que se han conocido en los meses que estuvo abierta la instalación, desconocemos si el traslado de los prisioneros enfermos se producía por un diagnóstico médico que declaraba incurable y sin ninguna posibilidad de vivir o sobrevivir sin esperanza de salvación.

Durante la guerra civil Gernika-Lumo fue un punto de la retaguardia de importancia por diversas causas ya indicadas. Igualmente fue un lugar en el que se ubicaron dos hospitales asignados a la Sanidad Militar de Euskadi. Estos fueron el Karmele Deuna, situado en el convento de las RR.MM. Carmelitas, con la categoría de “Gran Hospital”,

petxeratzeko leku berriak sortu zirelako, batez ere langileen batailoiak, zigor-destakamentuak eta espetxe-koloniak sortu zirelako.

